

INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN, *sindikalismo feminista!*

Zenbaezinak dira emakumeok* sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren eraginez jasaten ditugun erasoak; bai kalean, bai etxeetan, eta baita lan-zentroetan ere. Instituzioetatik planteatzen diren neurri eta protokoloek zertarako balio dute? **Indarkeria matxistaren aurkako egungo politiken porrotari buruz hitz egin dezakegu jada?** Edo jarraituko dugu instituzioetatik enpresetan protokolo antzuak bultzatzen, arazoari aurre egiteko gaitasunik ez daukatenak?

EAEko kasuan, Nerea Melgosak berak aitortu du: “Hutsune handia antzeman dute lan eremuan: bortxa pairatutako andre gehienek ez daukate nora jo enpresaren barruan”. Datuek argi azaltzen dute EAEn 74.749 emakumek pairatu dutela indarkeria matxista (izan sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala), eta horietatik guztietatik %4k bakarrik salatu dute. %63k adierazi dute enpresak ez duela berariazko prestakuntzarik ematen sexu jazarpeneko kasuetan gauzatu beharrezko prozeduraz.

Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko errealtateari dagokionez, adierazgarria da, halaber, bertako instituzioek ez dituztela sistematizatzen, baina egoera ez dela asko aldatzen. Zenbait inkestatako datuen arabera, Nafarroan 6.664 dira azken urtean indarkeria matxista sufritu dutenak.

Datuetatik harago, argi ikusten dugu indarkeria matxistak egunerokoak lan eremuan dituen adierazpen eta

ezaugarritzeak, askotan prekaritatearekin edo bestelako botere harremanekin (izan gure nagusiak edo lankideak) gurutzatuak. Argi ikusten dugu, era berean, zein helduleku gutxi eta zenbat oztopo dauden egoera horiei aurre egiteko, erasoak salatzen ditugunean ez dela inolako neurririk hartzen, edo, neurri zigortzaileak hartu bai, baina erasoak salatzen duen pertsonaren erreparaziorako inolako neurririk ez dela hartzen.

Bada garaia indarkeria lehen mailako arazo politiko eta sozial bezala hartua izan dadin.

Sindikalismo feminista ere indarkeria matxistaren kontrako borroka da. Sindikalismo feminista da langileok daukagun autodefentsa feministarako tresnarik eraginkorrena. Ez gara nekatuko esateaz: instituzioen eta patronalaren hipokrisiaren aurrean, borroka feministaz indarkeria patriarkalari aurre egiten jarraituko dugu. Indarkeria matxistaren aurrean sindikalismo feministari eragiten jarraituko dugu.

Norabide horretan, ez gara besoak gurutzatuta geratuko: enpresaz enpresa borrokatuko dugu, eta instituzioek eta patronalek dagokiten ardura har dezaten presio egingo dugu. Eskaera zehatzak egingo ditugu, indarkeria matxistaren inguruko formazio eta diagnostiko errealek izan daitezen. Eta, era berean, lantokietan aske izateko ahalik eta espazio seguruenak eraikitzeko lanean jarraituko dugu, eskura ditugun baliabide eta estrategia feministak partekatuz eta hedatuz.

Denok aske izan arte, borrokan jarraituko dugu!

25 Novembre

Journée internationale contre les violences machistes

CONTRE LA VIOLENCE MACHISTE, *syndicalisme féministe !*

Les agressions dont nous, les femmes*, sommes victimes en raison du système capitaliste cis-hétéro-patriarcal sont innombrables. Dans la rue, à la maison, mais aussi sur le lieu de travail. À quoi servent les mesures et les protocoles proposés par les institutions ? **Peut-on déjà parler de l'échec des politiques actuelles contre la violence machiste ?** Ou allons-nous continuer à voir les institutions promouvoir des protocoles stériles dans les entreprises, incapables de faire face au problème ?

Dans le cas de la Communauté autonome basque, Nerea Melgosa elle-même a reconnu : « Ils ont détecté une grande lacune dans le domaine du travail : la plupart des femmes qui ont subi des violences n'ont nulle part où aller au sein de l'entreprise ». Les données montrent clairement que dans la Communauté autonome basque, 74 749 femmes ont subi des violences machistes (qu'il s'agisse de harcèlement fondé sur le sexe ou de harcèlement sexuel), et seulement 4 % d'entre elles l'ont signalé. 63 % affirment que leur entreprise n'offre pas de formation spécifique sur les procédures à suivre en cas de harcèlement sexuel.

En ce qui concerne la réalité de la Navarre et d'Ipar Euskal Herria, même si les institutions locales ne fournissent pas les chiffres, la situation est semblable.

Au-delà des données, nous voyons clairement les différentes manifestations et caractéristiques que prend la violence machiste dans le quotidien du monde du travail : elle croise souvent la précarité ou d'autres relations de pouvoir (que ce soit avec nos supérieurs ou nos collègues). Nous voyons également clairement le

peu de ressources disponibles et les nombreux obstacles qui existent pour faire face à ces situations : lorsque les agressions sont signalées, aucune mesure concrète n'est prise, ou bien des sanctions sont appliquées, mais sans aucune réparation pour la personne qui a signalé l'agression...

Il est temps que la violence soit traitée comme un problème politique et social de premier ordre.

Le syndicalisme féministe est également un outil de lutte contre les violences sexistes. Le syndicalisme féministe est l'outil le plus efficace dont nous disposons, en tant que travailleuses, pour nous défendre. Nous ne nous lasserons pas de le répéter : face à l'hypocrisie des institutions et du patronat, nous continuerons à lutter contre la violence patriarcale par le combat féministe. Face à la violence machiste, nous continuerons à agir à partir du syndicalisme féministe.

Dans cette optique, nous ne resterons pas les bras croisés : entreprise par entreprise, nous lutterons pour faire pression sur les institutions et les employeurs afin qu'ils assument leurs responsabilités. Nous formulerons des revendications concrètes pour que des formations et des plans d'actions réels sur la violence machiste soient mis en place. Et dans le même temps, nous continuerons à œuvrer pour créer des espaces aussi sûrs que possible sur les lieux de travail, en partageant et en diffusant les ressources et les stratégies féministes dont nous disposons.

*Nous continuerons à nous battre jusqu'
à ce que nous soyons toutes libres !*

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA